

**EBAZPEN BATZORDEAREN BILERAREN**

**AKTA**

2016ko otsailaren 2a

Donostian, 2016ko otsailaren 2ko 17:00ak direnean, Gipuzkoako Batzar Nagusien egoitzan honako hauek bildu dira: Ebazpen Batzordearen lehendakari Juan Luis Ibarra Robles jn., eta Batzordearen kideak diren Andres Maria Urrutia Badiola jn., Javier Balza Aguilera jn., Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena jn., Jose Ramon Bengoetxea Caballero jn., Kepa Bilbao Gaubeka jn. eta Maria Carmen Agoues Mendizabal and.. Batzordearen idazkaria den Begoña Basarrate Aguirre and. ere bileran egon da. Honako erabakiak hartu dituzte:

**ERABAKIAK**

**LEHENENGOA.- AZKENEKO BILERATIK BATZORDEAREN  
EGOITZAN SARRERA IZAN DUTEN IDAZKIEN AZTERKETA**

Idazkari and.ak azkeneko bileratik Batzordearen egoitzan sarrera izan duten idazkien berri eman du:

1. 2015eko abenduaren 30ean Arabako Foru Aldundiko Lege-aholkularitza Zerbitzuko Letradu buruak aurkeztutako idazkia, Bizkaiko Foru aldundiak aurkeztutako 1/2015 eskumen-arazoarekin lotutako alegazioak eginez.
2. 2015eko abenduaren 30ean Arabako Batzar Nagusietako Letradu Nagusiak aurkeztutako idazkia, Bizkaiko Foru Aldundiak aurkeztutako 1/2015 eskumen-arazoarekin lotutako alegazioak eginez.
3. 2016ko urtarrilaren 7an Eusko Jaurlaritzako Araubide Juridikoko Sailburuordetzako letraduak aurkeztutako idazkia, Bizkaiko Foru

**EBAZPEN BATZORDEA**  
**COMISIÓN ARBITRAL**

Aldundiak aurkeztutako 1/2015 eskumen-arazoarekin lotutako alegazioak eginez.

4. 2016ko urtarrilaren 11n “Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak” Legebiltzarkide-Taldeko bozeramaileak aurkeztutako idazkia, Bizkaiko Foru Aldundiak aurkeztutako 1/2015 eskumen-arazoarekin lotutako alegazioak eginez.

5. Urtarrilaren 11n Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Administrazioa eta erakunde harremanetarako Saileko Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuaren Letradu buruak aurkeztutako idazkia, 1/2015, 2/2015, 3/2015 eta 4/2015 eskumen-arazoak metatzeari buruz alegazioak eginez. Bertan metatzearen aurkako eragozpenik ez duela esaten da eta berriz adierazten dira 1/2015 eskumen-arazoan aurkeztutako alegazioak.

6. 2016ko urtarrilaren 13an Arabako Foru Aldundiko Zerbitzu Juridikoetako Letradu buruak aurkeztutako idazkia, 2/2015 eta 3/2015 eskumen-arazoekin bat egiten duela adieraziz eta 2/2015, 3/2015 eta 4/2015 eskumen-arazoak 1/2015 arazoarekin metatzearen alde dagoela esanez.

7. 2016ko urtarrilaren 13an Arabako Foru Aldundiko Letradu nagusiak aurkeztutako idazkia 1/2015, 2/2015, 3/2015 eta 4/2015 eskumen-arazoak metatzeari buruz, non bidezkoa dela adierazten baitu.

8. 2016ko urtarrilaren 21ean Arabako Batzar Nagusietako Letradu Nagusiak aurkeztutako idazkia, 3/2015 eskumen-arazoarekin lotutako alegazioak eginez.

9. 2016ko urtarrilaren 21ean Arabako Batzar Nagusietako Letradu Nagusiak aurkeztutako idazkia, 4/2015 eskumen-arazoarekin lotutako alegazioak eginez.

10. 2016ko urtarrilaren 21ean Eusko Jaurlaritzako Araubide Juridikoko Sailburuordetzako letraduak aurkeztutako idazkia, 2/2015 eskumen-arazoarekin lotutako alegazioak eginez. Bertan, 1/2015 eskumen-arazoarekin metatzearekin ados dagoela dio, eta berresten ditu 2016ko urtarrilaren 7an aurkeztutako alegazio-idazkian adierazi eta eskatutakoa.

**EBAZPEN BATZORDEA**  
**COMISIÓN ARBITRAL**

11. 2016ko urtarrilaren 21ean Eusko Jaurlaritzako Araubide Juridikoko Sailburuordetzako letraduak aurkeztutako idazkia, 3/2015 eskumen-arazoarekin lotutako alegazioak eginez. Bertan, 1/2015 eskumen-arazoarekin metatzearekin ados dagoela dio, eta berresten ditu 2016ko urtarrilaren 7an aurkeztutako alegazio-idazkian adierazi eta eskatutakoa.

12. 2016ko urtarrilaren 21ean Eusko Jaurlaritzako Araubide Juridikoko Sailburuordetzako letraduak aurkeztutako idazkia, 4/2015 eskumen-arazoarekin lotutako alegazioak eginez. Bertan, 1/2015 eskumen-arazoarekin metatzearekin ados dagoela dio, eta berresten ditu 2016ko urtarrilaren 7an aurkeztutako alegazio-idazkian adierazi eta eskatutakoa.

13. 2016ko otsailaren 1ean “Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak” Legebiltzarkide-Taldeko bozeramaileak aurkeztutako idazkia, 2, 3 eta 4/2015 eskumen-arazoekin lotutako alegazioak eginez.

**BIGARRENA.- 1/2015, 2/2015, 3/2015 eta 4/2015 ESKUMEN-ARAZOAK METATZEARI BURUZKO ERABAKIA.**

Aurkeztutako eskumen-arazoak metatzeari buruz, ondoko hau erabaki da:

1. Aipatutako eskumen-arazoak metatzea hori justifikatzen duten arrazoi nahikoa daudela ulertzen baita.

2. Eztabaida egin, txostenak aurkeztu eta erabakia behin-betiko idazteko irizpideei dagokienez, erabakia formulatzeko irizpideak honako hauek izatea erabaki da:

- a) “Aurrekariak”: txostengile bakoitzak eskumen arazoaren xedea eta hari dagozkion jarrerak adieraziko ditu hurrenez hurren.
- b) “Zuzenbideko oinarriak”: eskumen-arazoan inguruko eztabaida jarraiko bi multzotan egingo da. Lehenengo multzoa aurkeztutako lau arazo orokorreari buruzkoa da; eta

**EBAZPEN BATZORDEA**  
**COMISIÓN ARBITRAL**

bigarren multzoa lege proposamenaren artikulua desberdinen aurka zuzendutako aurkarapen zehatzei buruzkoa. Arazo orokorren inguruko eztabaidan lau txostengileek hartuko dute parte ondorengo banaketarekin bat etorrira:

- Forutasunaren muin ukiezina bermatzen duen esparru orokorra (txostengilea: Kepa Bilbao Gaubeka jn.).
- Foru-araubide pribatiboa bermatzeko proiektzioa Eusko Legebiltzarraren eskumen-legegilea mugatzeko orduan (txostengilea: Andres M<sup>a</sup> Urrutia Badiola).
- Eskumena Foru Ogasunen arloan eta udalerrien finantzen zaintza betetzeari buruzko arloan (txostengilea: Carmen Agoues Mendizabal and.).
- Eskumen-eremuari hurbilketa, Lege Proposamenaren 2. Kapituluak aipatzen duen gobernuarteko lankidetzari dagokionez (txostengilea: Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena jn.).
- Lege Proposamenaren artikulua zehatzei buruzko aurkarapenak ebazteari dagokionez, Andres Maria Urrutia Badiola jn.ari egokituko zaio hasierako txostena egitea.

c) Kepa Bilbao Gaubeka txostengileari dagokio Batzordearen iritzia adieraztea behin-betiko idatziz.

Azpirarratzeko moduko besterik ez dagoenez, bukatutzat ematen da bilera hau, 18:30 direnean, eta bertaratutakoei dei egiten zaie hurrengo saiorako, zeina 2016ko martxoaren 1ean, 17etan, Gasteizko Eusko Legebiltzarraren egoitzan egingo baita. Akta hau egin da eta Batzordeko lehendakariak eta kideek sinatu dute. Nik, idazkariak, fede ematen dut.